

Kontsulta bat eskatzeko prozedura

Gizartean Esku Hartzeko Arabako Etika Batzordeari (CEISA) auzi etikoak sortzen dituzten egoerei buruzko kontsultaren bat egin nahi dionak eskaera idatziz egin beharko du eta Batzordearen idazkaritzara helarazi.

Identifikazio datuak

Eskatzailearen datu hauek adierazi behar dira:

- Izen-abizenak eta zer izaerarekin egiten duen kontsulta.
- Kontsulta izaera honekin egiten du:
 - Gizarte zerbitzuetako edo zerbitzu soziosanitarioetako langilea (lanpostua adierazita).
 - Gizarte zerbitzuen edo zerbitzu soziosanitarioen erabiltzailea.
 - Gizarte zerbitzuen edo zerbitzu soziosanitarioen erabiltzailearen senidea.
 - Gizarte zerbitzuen edo zerbitzu soziosanitarioen erabiltzailearen legezko ordezkaria.
 - Gizarte zerbitzuak edo zerbitzu soziosanitarioak ematen dituen erakunde baten ordezkaria (erakundearen izena adierazita).
- Posta elektronikoko helbidea, harremanetarako telefono zenbakia.

Kontsultari buruz aintzat hartu beharrekoak

- Batzordeari kasua aurkezteko kontakizun bat idatziko da, inguruabarrak argi eta labur azalduta. Testua mekanografiatuta egongo da, edota formatu elektronikoa, eta Etika Batzordeari egindako kontsulta eskaerari erantsiko zaio.
- Txostena idazteko garaian, isilean gordeko dira kasuan nahastutako pertsonak identifikatzeko bidea eman dezaketen datuak (izenak, lekuak, eta abar aldatuz).
- Argi eta garbi adieraziko da zein diren batzordeari egin nahi zaizkion galderak.
- Kontsultaren xede den kasuan nahastutako pertsonen alde aurretik jakinarazi behar zaie kontsulta egingo dela.
- Eskaera presakoa den ala ez jasoko da, bai eta presaren arrazoia zein den ere.

Eskaera orria entregatzea

- CEISAREN idazkaritzan aurrez aurre entregatzea. Alaba Jeneralaren kalea, 10, 4. solairua, 7. bulegoa (08:00-14:00).
- Posta bidez, helbide honetara bidalita: CEISAREN idazkaritza. Alaba Jeneralaren kalea, 10, 4. solairua, 7. bulegoa. 01005 GASTEIZ.
- Fax bidez, CEISAREN idazkaritzara zuzenduta: 945 151 017
- Posta elektronikoa bidez: comiteeticaifbs@araba.eus

Prozedura

- Kasua onartu ondoren, Batzordeko idazkariak kontsulta egileak aurkeztutako agiriak helaraziko dizkie CEISako kideei, betiere nahikoa aurrerapenarekin, kideek alde zuzenetik gaia aztertu ahal izateko.
- Kontsulta eskatu duen pertsonari dei egingo zaio CEISaren hurrengo bilerara bertaratu eta gaia azaldu dezan (batzordeak erabakitzen badu gaia presakoa dela, Batzorde Iraunkorra deitu ahal da).
- Azalpenen ondoren, CEISako kideek egokiak diren galderak egingo dizkiote hizlariari, gertatutakoa ahalik eta gehien argitze aldera.
- Behin batzordearen zalantzak argituta, kasua atek itxita aztertuko da. Saio guztietan gogoraraziko da bertan lantzen diren gai denak isilean gorde behar direla.
- Kasuari buruzko eztabaidan, deliberazioko metodoaren pausoak jarraituko dira, eta bileran dauden batzordeko kide guztiek parte hartuko dute.
- Deliberazio zehurraren oinarrituriko prozesua amaitzen denean, kontsulta egileari zuzendutako azken txostena idatziko da.
- Batzordeko kide batek edo bik txostena entregatuko diote kontsulta egileari. Halaber, jakinaraziko diote txostena isilpekoa dela eta kontsulta egin duenari erabaki etikoak hartzen laguntzeko asmoa besterik ez duela, hau da, ez dela loteslea. Erabakiaren ardura kontsulta egilearena da beti; ezin zaio Etika Batzordeari subrogatu, ez eta batzordekideei ere.